

ERAKUNDE LAGUNTZAILEENTZAKO ESKULIBURUA

UNIBERTSITATE-ENPRESA AIPAMEN DUALA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (GIPUZKOAKO ATALA)
ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUA
2026/2027

Aldaketen kontrola

1. taula: Dokumentuaren kontrola

Dokumentuaren bertsioa	1.0
Eguneratze data	2026/06/01
Ikastegia	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Atala)
Titulazioa	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua
Webgunea	https://www.ehu.eus/es/web/ekonomia-enpresa-fakultatea/donostia-san-sebastian-prestakuntza-duala
Arduraduna	Praktiketako eta Enplegarritasuneko dekanordea Egoitz Pomares Urbina
Email	egoitz.pomares@ehu.eus
Kalitatea	Unibertsitateko Prestakuntza Dualaren Kalitate Zigilua, erregistro zenbaki honekin: 48012875-D2019-025, 2019/06/07
Oharra	Gida honen helburua da informatiboa eta operatiboa. Lan baldintza zehatzak izango dira dagokion hitzarmen kolektiboan, sinatutako kontratuan eta indarrean dagoen araudian jasotakoak.

Laburpen exekutiboa.....	4
1. Sarrera	5
2. Zer da Unibertsitate-Enpresa Ibilbide Duala?.....	5
3. Zer ekarpen egiten dio EAZ Ibilbide Dualak enpresari?	6
4. Parte-hartzaileak eta erantzukizunak.....	7
5. Egonaldien egutegia eta antolakuntza.....	8
6. Lanean hasi aurreko dokumentazioa.....	9
7. Ikas-ekinezko prestakuntza kontratua eta pizgarriak.....	10
8. Prestakuntza proiektua, banakako prestakuntza plana eta enpresako tutorea	12
9. Harrera, jarraipena, ebaluazioa eta gorabeherak	13
10. GRALa enpresan eta zeharkako bermeak	14
1. eranskina: EHUKo prestakuntza DUALAREN araudia	16
2. eranskina: Prestakuntza-proiektua eskatzeko fitxa	16
3. eranskina: Lankidetzaren hitzarmena	16
4. eranskina: Egonaldien arabera prestakuntza proiektua.....	16
5. eranskina: Eginkizunen Plana (GRAL).....	16
6. eranskina: Egonaldien arabera balorazio txostena.....	16

Laburpen exekutiboa

EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Gipuzkoa atala) Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (EAZ) Graduaren Unibertsitate-Enpresa aipamen dualak aukera ematen du konbinatzeko unibertsitateko prestakuntza akademikoa eta enpresa edo erakunde laguntzaile batean eginiko prestakuntza edo lan-jarduera. Helburua da ikasle langileak gaitasun profesionalak eskuratzea, ingurune erreal batean, planifikatutako, tutorizatutako eta ebaluatzeko moduko prestakuntza proiektu baten bidez.

Enpresa laguntzailea eragile aktibo bat da ikaslearen prestakuntza prozesuan, eta haren zeregina ez da bakarrik ikasle bat hartzea, ezpada fakultatearekin elkarlanean aritzea, EAZ graduaren jarduerak definitzen, ikasteko giro egoki bat sortzen, tutore edo instruktore bat izendatzen, ikaslearen bilakaeraren jarraipena egiten eta lorturiko emaitzen ebaluazioan parte hartzen.

Ibilbidea garatzen da EHUren, enpresaren eta ikasle langilearen arteko lankidetza formalaren bidez. Ikaslea enpresan hasi aurretik, zehaztu edo formalizatu egin behar dira, dagokionaren arabera, lankidetza hitzarmena, prestakuntza proiektua, banakako prestakuntza plana, ikas-ekinezko prestakuntza kontratua, egutegia, enpresako instruktorea eta lanean hasteko oinarrizko baldintzak.

Oro har, enpresaren eta ikaslearen arteko harremana arautzen da ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren bidez, aukera ematen duena bateragarri egiteko lan ordaindua eta unibertsitate ikasketak. Enpresan eginiko lanak zerikusia izango du EAZ graduarekin, legeriaren mugak beteko ditu lanaldiari eta ordainsariari dagokienez, bateragarria izango da jarduera akademikoarekin eta benetako prestakuntza helburu bati erantzungo dio.

EAZ Aipamen Dualean parte hartzeak bide egituratu bat eskaintzen dio enpresari, unibertsitate talentuaren prestakuntzan laguntzeko, ikaslearen profil profesionala pixkanaka ezagutzeko, erakundearen benetako beharrei lotutako proiektuak garatzeko eta unibertsitatearekin duen harremana indartzeko. Gainera, ikas-ekinezko prestakuntza kontratuak pizgarriak eta hobariak ekar ditzake, indarrean dagoen araudian ezarritako moduan, betiere baldintzak betez gero.

Ibilbideak behar bezala funtziona dezan, mailaz maila egin beharreko lan ebaluagarriak planifikatu behar ditu enpresak, instruktorearen prestasuna bermatu, aldizkako jarraipena egin, gorabehera garrantzitsuen berri eman eta egonaldi bakoitza ixten lagundu. Gradu Amaierako Lana lot daiteke enpresan eginiko proiektuarekin, balidazio akademikoarekin beti, eta kontuan hartuta aplikatu beharreko konfidentziasun, datuen babes eta jabetza intelektual edo industrialeko baldintzak.

Gida honek erreferentzia praktikoa ematen die enpresei, EAZ Aipamen Dualean parte hartzeko modu seguruan, argitasunez eta EHUrekin koordinatuta.

1. Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Gipuzkoa Atala) Unibertsitate-Enpresa Ibilbide Dual bat eskaintzen du Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan, ikaskuntza akademikoa, enpresa jarduera eta gaitasun profesionalak pixkanaka eskuratzea konbinatzen dituen modalitate gisa.

Gida hau da EAZ Ibilbide Dualean parte hartzen duten edo parte hartu nahi duten enpresa eta erakunde laguntzaileentzat. Helburua da erreferentzia praktiko bat ematea egin behar diren urratsei buruz, ikasle langilea lanean hasi aurretik, ikaslearen egonaldian eta ibilbidea ixtean.

Enpresa laguntzailea eragile aktibo bat da prestakuntza prozesuan, fakultatearekin koordinatuta, eta zereginen artean ditu giro profesional egoki bat sortzea, EAZ graduari loturiko jarduerak definitzen laguntzea, tutore edo instruktore bat izendatzea, ikasitakoaren jarraipena egitea eta emaitzen ebaluazioan parte hartzea, adostutako prestakuntza proiektuaren arabera.

Ibilbidea egituratzen da dagokion dokumentazio akademiko eta laboralaren bidez. Besteak beste: lankidetzak hitzarmena, prestakuntza proiektua, banakako prestakuntza plana eta ikas-ekinezko prestakuntza kontratua. Egondaldi bakoitzaren baldintza zehatzak egokituko dira unibertsitate eta lan arloko araudietara, aldeek sinatutako hitzarmenera, formalizatutako kontratura eta dagokion hitzarmen kolektibora.

2. Zer da Unibertsitate-Enpresa Ibilbide Duala?

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduaren Unibertsitate-Enpresa Aipamen Duala da unibertsitatearen prestakuntza modalitate bat, konbinatzen dituen, era planifikatu eta ebaluagarri batean, EHUn eginiko jarduera akademikoa eta enpresa edo erakunde laguntzailean eginiko prestakuntza eta lan jarduera.

Ibilbide hau kokatzen da unibertsitate titulu ofizialetarako aurreikusitako Aipamen Dualean. Aipamen honetan, prestakuntza proiektu komun bat egin behar da, modu osagarri batean unibertsitatearen eta erakunde laguntzailearen artean, unibertsitate ikastegiak gainbegiratuta eta gidatuta prestakuntzaren ikuspegitik. Graduak tituluetan, kredituen % 20 eta % 40 artean erakunde laguntzaile batean egin behar dira, Gradu Amaierako Lana (GRAL) barne.

Horregatik, EAZ Ibilbide Duala ez da hartu behar ohiko kanpoko praktikatzat, ezpada graduaren txertatutako curriculum egituratzat, gaitasunei, ikaskuntza emaitzei, jarraipenari eta ebaluazioari lotuta. Enpresa eragile aktibo bat da eta fakultatearekin elkarlanean dihardu, jarduerak definitzen, ingurune profesionala tutorizatzen eta ikasleak ikasitakoa baloratzen.

Ibilbideak Unibasq agentziaren onespina du. Ebaluazio txostenetan ikus daiteke prestakuntza proiektua modu osagarrian garatzen dela unibertsitate ikastegiaren eta erakunde laguntzaileen artean, eta haren helburuak bat datozela EAZ graduaren helburuekin. Halaber, nabarmentzen dute enpresak aktiboki parte hartu behar duela irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, eta ez duela ikaslearen hartzailerik izan behar.

Erreferentzia esparrua

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduaren Unibertsitate-Enpresa Ibilbide Duala garatzen da arau esparru akademiko, laboral eta instituzional baten barruan. Esparru honek arautzen ditu: unibertsitatearen Aipamen Duala, EHUn eta enpresaren arteko lankidetzak, ikas-ekinezko prestakuntza kontratua, prestakuntza proiektu komuna, jarraipena, tutoretza eta ikasitakoaren ebaluazioa.

1. taula: Erreferentzia esparrua

Araua/Dokumentua	Zer izan behar du kontuan enpresak?
2/2023 Lege Organikoa	Enpresa-unibertsitate lankidetzak kokatzen du unibertsitatearen prestakuntza, gizarte eta transferentzia funtzioaren barruan.
822/2021 Errege Dekretua	Enpresan eginikoak ez dira ohiko praktikak: graduari txertaturiko prestakuntza proiektu batean parte hartzen da, gaitasunekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lerrotuta dauden zereginekin.
32/2021 Errege Lege Dekretua	Ikasle langilearekiko harremana lan arlokoa da. Egin beharreko lanek zerikusia izan behar dute EAZ graduarekin eta prestakuntza proiektuarekin.
1065/2025 Errege Dekretua	Giza Baliabideetarako eta lan aholkularitzarako lan arloko arau operatibo nagusia da. Berrikusi egin behar da, kontratua formalizatzean eta ordutegia, ordainsaria, tutoretza eta dokumentazioa finkatzean.
Prestakuntza dualari buruzko UPV/EHUraren araudia	Enpresak dagokion hitzarmena sinatu behar du, prestakuntza proiektuan lagundu, bateragarritasun akademiko-laborala bermatu, jarraipenean parte hartu eta tutorea/instruktorea izendatu.

Egonaldi bakoitzaren baldintza zehatzak egokituko dira EHUK eta enpresak izenpetutako hitzarmenera, formalizatutako kontratura, banakako prestakuntza planera, dagokion hitzarmen kolektibora eta indarrean dagoen legeriara.

Ohiko kanpoko praktikekiko desberdintasuna

EAZ Aipamen Dualak ohiko kanpoko praktikekiko duen alde nagusia da ibilbidearen intentsitate akademikoa, laborala eta antolakuntza mailakoa. Ohiko kanpoko praktika batean, enpresak ikaslea hartzen du haren prestakuntza osatzeko. Aldiz, ibilbide dualean, enpresak prestakuntza proiektu komun batean parte hartzen du, tutore edo instruktore bat izendatzen du, jarraipenean laguntzen du, ikaskuntza ebidentziak ematen ditu eta ikasle langilearen ebaluazioan parte hartzen du.

Desberdintasun nagusia da ibilbide dualak hiru elementu bereizezin konbinatzen dituela: unibertsitate prestakuntza, lan jarduera ordaindua eta prestakuntza proiektu ebalagarria. Beraz, enpresan eginiko lanak zerikusia izan behar du EAZ graduarekin, bateragarria izan behar du jarduera akademikoarekin eta aukera eman behar du gaitasun profesionalak eskuratzeko.

3. Zer ekarpen egiten dio EAZ Ibilbide Dualak enpresari?

EAZ Aipamen Dualean parte hartzeak aukera ematen dio enpresari zuzenean laguntzeko unibertsitate ikasleen prestakuntzan, titulazioaren fase aurreratu batean, benetako prestakuntza proiektu bati lotutako harreman luze eta planifikatu baten bidez.

Enpresarentzako balioa ez da mugatzen etorkizunean bere egiturari talentua gehitzeko aukerara. Ibilbideak aukera ematen dio ikaslea denbora tarte luze batean ezagutzeko, erakundearen pixkanaka integratzeko, EAZ graduari loturiko jarduerak garatzeko eta EHUrarekin duen harremana indartzeko.

2. taula: Enpresarentzako balioa

Balio ekarpena	Inpaktua
Talentuaren prestakuntzan parte hartzea	Aukera ematen du ikasleak trebatzeko EAZ graduarekin bat datozen enpresa kudeaketaren gaitasun errealean.
Profil profesionala pixkanaka ezagutzea	Ibilbidearen iraupenak laguntzen du gaitasunak, jarrera, autonomia eta erakundearekiko egokitzapena ebaluatzen.
Enpresan pixkanaka integratzea	Ikaslea mailaz maila sartzen da lantaldean, hasierako ikaskuntza faseetatik erantzukizun handiagoko zereginetara igarota.
Lan eta proiektu errealak egitea	Lanak egokitu daitezke enpresaren benetako premietara, prestakuntza proiektuaren barruan beti.
Harreman egonkorra unibertsitatearekin	Fakultatearekiko elkarlana errazten du, eta jakintza, ikasleak eta dinamika akademikoak eskura izatea.
Prestakuntza kontratuari loturiko pizgarriak	Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuak hobariak izan ditzake kotizazioan eta tutoretza kostuetan, legezko baldintzak betetzen badira.

Enpresak balio handiagoa lortzen du prestakuntza proiektu argi bat definitzen duenean, pixkanakako lanak esleitzen dituenean, eskura egongo den instruktore bat izendatzen duenean, aldizkako jarraipena egiten duenean eta esperientzia tutore akademikoarekin koordinatzen duenean.

Nolanahi ere, EAZ Ibilbide Duala ez da hartu behar ohiko praktikatzat, egiturazko lanpostuak betetzeko aukeratzat edo ondorengo kontratazio baten berriztat. Aldiz, hartu behar da unibertsitatearen, enpresaren eta ikasle langilearen arteko elkarlan egituratutzat, ezaugarri nagusi dituen enpresan eginiko lan erreala, baterako jarraipena eta ikasitakoaren ebaluazioa.

4. Parte-hartzaileak eta erantzukizunak

EAZ Aipamen Duala garatzen da Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen (Gipuzkoa atala), enpresa edo erakunde laguntzailearen eta ikasle langilearen arteko lankidetzak koordinatuaren bidez. Alde bakoitzak bere eginkizunak ditu, baina guztiek aritu behar dute modu koordinatuan, honako hauek bermatzeko: enpresan eginiko egonaldiak bere prestakuntza helburua beteko duela, adostutako proiektura egokitu dela eta jarduera akademikoarekin bateragarria izango dela.

Prestakuntza dualak nahitaezkoa du erakunde laguntzaileak prestakuntza prozesuan aktiboki parte hartzea. Kontua ez da besterik gabe ikasle bat enpresaren edo erakundearen sail batean sartzea, EHUrekin lankidetzan aritzea baizik, prestakuntza proiektu komun batean, EAZ graduari loturiko jarduerekin, jarraipen eraginkor batekin eta ikasitakoaren ebaluazioarekin. EHUren araudiak dio enpresak lagundu egin behar duela ikaslearen prestakuntza ibilbidean, eta jarduera akademikoak eta lanekoak bateragarriak izan behar dutela edukiari eta ordutegiari dagokienez.

3. taula: Parte-hartzaileak, rolak eta erantzukizunak

Parte-hartzailea	Erantzukizunak
Fakultatea / Ibilbide Dualaren koordinazioa	Ibilbidea koordinatzen du, prestakuntza proiektua EAZ gradura egokitzen dela egiaztatzen du, tutore akademikoak izendatzen du, jarraipena antolatzen du, prozesuaren kalitatea zaintzen du eta gorabehera garrantzitsuak bideratzen ditu.
Enpresa laguntzailea	Prestakuntza proposamen errealista bat definitzen du, dagokion dokumentazioa formalizatzen du, ikasle langilea kontratatzen du, haren integrazioa errazten du, bitarteko egokiak jartzen ditu, prestakuntza akademikoarekiko bateragarritasuna bermatzen du eta jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen du.
Tutore akademikoak	Ibilbidearen garapen akademikoan laguntzen du, enpresako instruktorearekin koordinatzen da, prestakuntza proiektuaren jarraipena egiten du, ebaluazioan parte hartzen du eta, hala badagokio, GRALA zuzentzen du.
Enpresako tutorea edo instruktorea	Harrera egiten dio ikasleari, enpresako jarduera antolatzen du, zereginen garapena gainbegiratzen du, ikaskuntza bideratzen du, unibertsitatearekin koordinatzen da, gorabeheren berri ematen du eta ebaluaziorako behar diren txostenak egiten ditu.
Ikasle langilea	Betebehar akademikoak eta lanekoak betetzen ditu, prestakuntza proiektuan aurreikusitako zereginak egiten ditu, jarraipen bileretan parte hartzen du, eskatzen diren ebidentziak eta txostenak egiten ditu, eta enpresaren barne arauak errespetatzen ditu.

Batzorde mistoa	Ibilbidearen koordinazio orokorra gainbegiratzeko, gorabeherak aztertzen ditu, ebidentziak berrikusten ditu, ikasleen jarraipena bermatzeko eta hitzarmena betetzekoaren kontrol funtzioak betetzen ditu.
-----------------	---

Egonaldi bakoitza hasi aurretik, argi zehaztu behar dira arduradunak, komunikazio kanalak, egutegia, zereginak eta jarraipen sistema. Hasierako plangintza honek aukera ematen du gaizki-ulerturik ez izateko eta enpresan eginiko lanak onartutako prestakuntza proiektuari erantzuten diola ziurtatzeko.

Enpresak tutore akademikoari jakinarazi behar dio egonaldian eragin dezakeen edozein aldaketa garrantzitsu, bereziki aldatzen direnean egutegia, ordutegia, erakunde edo enpresako saila, agindutako zereginak, instruktoarea edo lan baldintzak. Aldaketak arretaz aztertuko dira, ikusteko ea bat datozen prestakuntza proiektuarekin, kontratuarekin eta ikasle langilearen jardura akademikoarekin.

Beraz, enpresak EAZ Ibilbide Dualen parte hartzeak berekin dakar prestakuntza arloko erantzukidetasuna: jardura egokiak definitzea, ikaskuntzan laguntzea, fakultatearekin koordinatzea, jarraipen ebidentziak aurkeztea eta ebaluazioan laguntzea.

4. taula: Unibertsitate-Enpresa lankidetzak

Dimentsioa	Zer arautzen du?
Akademikoa	Ibilbidea EAZ graduaren parte da, eta gaitasunei, ikaskuntza emaitzei, jarraipenari eta ebaluazioari lotuta egon behar du.
Prestakuntza arlokoa	Enpresan eginiko lana antolatzen da prestakuntza proiektu baten eta pixkanakako lanen plan baten bidez.
Lan arlokoa	Enpresaren eta ikaslearen arteko harremana oinarritzen da ikas-ekinezko prestakuntza kontratu batean, indarrean dagoen araudiaren arabera.

5. Egonaldien egutegia eta antolakuntza

EAZ Aipamen Duala pixkanaka garatzen da bi ikasturtetan, eta konbinatzen ditu unibertsitate prestakuntza, enpresan eginiko lan ordaindua eta Gradu Amaierako Lana. Aurreikusitako gutxienezko arduraldia 1.250 ordu dira, enpresan eginiko hiru egonalditan eta GRALaren garapenean banatuta.

Hona hemen 2026/2027 eta 2027/2028 kohorterako ibilbidearen gutxi gorabeherako banaketa:

5. taula: Ibilbide dualaren egutegia

Egonaldia	Aldiak	Orduak	Edukiak
Egonaldia I	2027 otsaila – 2027 ekaina	325 ordu	Harrera, lantaldean sartzeko lehen urratsak, enpresa ezagutzea eta prestakuntza proiektuaren lehen zereginak egitea.
Egonaldia II	2027 iraila – 2027 abendua	250 ordu	Ikaskuntza sendotzea, garrantzi handiagoko lanetan parte hartzea eta helburuen jarraipena egitea.
Egonaldia III	2028 urtarrila – 2028 apirila	375 ordu	Jardura handiagoko enpresan, gaitasunak era aurreratuagoan garatzea eta ibilbidea ixteko prestatzea.
Gradu Amaierako Lana (GRAL)	2028 maiatza – 2028 ekaina/uztaila	300 ordu	GRALA egitea, prestakuntza proiektuari loturikoa eta, hala badagokio, enpresaren behar, analisi edo erronka bati loturikoa.

Lehen bi egonaldietan, ohiko arduraldia izango da 16 ordu/aste-koa gutxi gorabehera. Egutegi akademikoaren eta proiektuaren arabera, bi modutan antolatu ahal izango dira ordu horiek: enpresan bi egun oso eginez, edo lanaldi

erdiak eginez. Hirugarren egonaldian, ordu gehiago sartu ahal izango dira astean, legezko mugak, kontratua, hitzarmen kolektiboa eta jarduera akademikoarekiko bateragarritasuna beteta beti.

6. taula: prestakuntza antolatzea ikas-ekinezko erregimenean

Fasea	Deskribapena
Egonaldia I	2 egun oso enpresan edo 4 lanaldi erdi, egutegi akademikoaren eta proiektuaren beharren arabera.
Egonaldia II	2 egun oso enpresan edo 4 lanaldi erdi, egutegi akademikoaren eta proiektuaren beharren arabera.
Egonaldia III	Arduraldi osoa: ordu gehiago enpresan astean, ahal dela astean zehar banatuta, legezko mugen eta muga akademikoen barruan beti.
Gradu Amaierako Lana (GRAL)	Gradu Amaierako Lanari lotutako arduraldia, jarraipen akademikoarekin eta, hala badagokio, enpresaren laguntzarekin.

Enpresak, fakultateak eta ikasle langileak egonaldi bakoitzaren aurretik adostu beharko dituzte hasierako eta amaierako datak, enpresara joan beharreko egunak, asteko lanegunen banaketa, zer arlo edo departamentutan arituko den, zer lan egingo diren eta eginiko lanaren jarraipen sistema. Informazio hau jasoko da prestakuntza proiektuan, banakako prestakuntza planean eta, hala badagokio, egonaldi bakoitzaren dokumentu eranskinetan.

Egutegia antolatzeko moduak bermatu egin beharko du lan jardueraren eta unibertsitate prestakuntzaren arteko bateragarritasuna. Enpresaren ordutegia ez da oztopo izango jarduera akademikoarentzat eta jarduera horren jarraipen eta ebaluazioarentzat. Gainera, ikas-ekinezko prestakuntza kontratuan, benetako lan denborak kontuan izango ditu legez ezarritako gehieneko ehunekoak: gehieneko lanaldiaren %65 lehen urtean, eta %85, bigarreanean.

Edozein aldaketa garrantzitsu eginez gero egutegian, ordutegian, arduraldian, lan egin beharreko sailean edo agindutako lanetan, tutore akademikoari jakinaraziko zaio, ikusteko ea bateragarri izaten jarraitzen duen ikasle langilearen prestakuntza proiektuarekin, banakako prestakuntza planarekin eta jarduera akademikoarekin.

6. Lanean hasi aurreko dokumentazioa

Ikasle langilea enpresan hasi aurretik, zehaztu eta formalizatu egin behar dira EAZ Ibilbide Dualari oinarri akademikoa, prestakuntzakoa eta lan arlokoa ematen dioten dokumentuak. Dokumentazio honek ziurtatzen du egonaldiak benetako prestakuntza proiektu bati erantzuten diola, lanak EAZ graduari dagozkiola, jarduera akademikoa eta lan jarduera bateragarriak direla, eta enpresarekiko harremana behar bezalakoa dela.

Enpresak ziurtatu egin behar du EHUREkiko elkarlana formalizatu egin dela dagokion lankidetzaren hitzarmenaren bidez, eta egonaldiak prestakuntza proiektu bat eta banakako prestakuntza plan bat dituela. EHUREn prestakuntza dualaren araudiak unibertsitatea eta erakunde laguntzailea behartzen ditu prestakuntza duala egiteko baldintzak zehaztera eta jarduera akademikoa eta lan jarduera edukiari eta ordutegiari dagokienez bateragarri egitera.

Lan ikuspegitik, harremana gauzatzen bada ikas-ekinezko prestakuntza kontratu bidez, enpresak kontratua formalizatu beharko du, alta izapidetu eta dagozkion lan komunikazioak egin. Gainera, kontratua egin aurretik, egiaztatu egin beharko du aurreikusitako lan jarduera bat datorrela kontratua justifikatzen duten unibertsitate ikasketei loturiko prestakuntza jarduera egoki batekin. 1065/2025 Errege Dekretuak espresuki aipatzen du alde zuzeneko egiaztapen hori, eta exijitzen du lan jarduera ordaindua prestakuntza prozesuan txertatzea eta prozesu horrekin koordinatzea.

Praktikan, enpresan lanean hasi aurretik, argi eta garbi zehaztu beharko dira elementu hauek:

7. taula. Faseak

Elementua	Zehaztu beharrekoa
EHU – enpresa lankidetz hitzarmena	Fakultatearen eta erakundearen arteko lankidetz esparru orokorra.
Prestakuntza proiektua	Zer arlotan lan egingo den, aurreikusitako zereginak, ikaskuntza helburuak eta graduarekiko lotura.
Banakako prestakuntza plana	Lan jardueraren, unibertsitate prestakuntzaren, egutegiaren, tutoretzaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura.
Ikas-ekinezko prestakuntza kontratua	Enpresaren eta ikasle langilearen arteko lan harreman ordaindua, eranskinekin eta komunikazioekin.
Egutegia eta ordutegia	Datak, enpresara joan beharreko egunak, asteko banaketa eta arduraldiaren jarraipen sistema.
Enpresako instruktorea	Harrerarako, orientaziorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako erreferentziazko pertsona enpresan.
Lan baldintzak	Barne arauak, laneko arriskuen prebentzioa, lanerako bitartekoak, konfidentzialtasuna eta datuen babesa, hala badagokio.

Enpresak informazio hau emango dio fakultateari: tutorearen edo instruktorearen datuak, ikaslea arituko den arloa edo saila, aurreikusitako hasierako zereginak eta egonaldiaren beste edozein baldintza garrantzitsu. Halaber, oinarritzko informazioa emango dio ikasleari: hala nola erakundearen funtzionamendua, barne arauak, lan baliabideak eta segurtasunari, konfidentzialtasunari eta enpresaren informazioaren erabilerari buruzko betebeharrak.

Ikas-ekinezko prestakuntza kontratua idatziz formalizatuko da, eta eranskin gisa gehituko zaizkio banakako prestakuntza plana eta lankidetz hitzarmena. Gainera, langileak legezko ordezkaritza duenean, honek eskubidea izango du kontratuaren oinarritzko kopia eta banakako prestakuntza planaren kopia jasotzeko, lan araudian ezarritako baldintzetan.

Ikaslea enpresan lanean hasi aurretik, argi eta garbi jasoko dira dokumentu bidez hitzarmena, kontratua (hala badagokio), banakako prestakuntza plana, egutegia, hasierako zereginak, instruktorea eta lanean hasteko oinarritzko baldintzak. Aldez aurreko dokumentazioa ez da izapide formal bat, berme bat baizik, ziurtatzeko egonaldia prestakuntza dualeko benetako esperientzia izango dela, eta ez ohiko praktika edo graduarekin loturarik ez duen lan harremana.

7. Ikas-ekinezko prestakuntza kontratua eta pizgarriak

Oro har, EAZ Ibilbide Duala oinarritzen da enpresaren eta ikasle langilearen arteko ikas-ekinezko prestakuntza kontratu batean. Kontratu modalitate honek bateragarri egiten ditu enpresako lan ordaindua eta unibertsitate ikasketak, betiere bi-biak prestakuntza proiektu berean txertatuta eta koordinatuta badaude. 1065/2025 Errege Dekretuak garatzen du Langileen Estatutuaren 11. artikuluan aurreikusitako prestakuntza kontratuaren araubidea, eta bi modalitate bereizten ditu: ikas-ekinezko prestakuntza kontratua eta praktika profesionala lortzeko kontratua. Ibilbide honetan, lehenengoa aplikatzen da: ikas-ekinezko araubideko prestakuntza kontratua.

Helburua eta formalizazioa

Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren xedea prestakuntza da. Ikasle langilearen lan jarduerak EAZ ikasketekin zerikusia izan behar du, unibertsitate prestakuntza osatu behar du eta gaitasun profesionalak pixkanaka eskuratzeko aukera eman behar du. Ez da erabili behar enpresaren plantilla beharrei erantzuteko, ez eta prestakuntza proiektuarekin zerikusirik ez duten zereginak esleitzeko ere.

Kontratua egin aurretik, enpresak egiaztatu egin behar du aurreikusitako lan jarduera bat datorrela unibertsitate ibilbideari lotutako prestakuntza jarduera egoki batekin. 1065/2025 Errege Dekretuak espresuki aipatzen du aldez

aurreko egiaztapen hori, eta exijitzen du lan jarduera ordaindua prestakuntza prozesuan txertatzea eta prozesu horrekin koordinatzea.

Kontratua idatziz formalizatuko da, besteak beste zehaztuta iraupena, lanpostua, lanaldia, ordainsaria eta kontratu modalitatea. Gainera, EHUrekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena eta banakako prestakuntza plana gehituko zaizkio. Enpresak dagozkion lan jakinarazpenak egin beharko ditu, eta langileek legezko ordezkariak dutenean, legez aurreikusitako informazioa eman beharko du, kontratuaren eta banakako prestakuntza planaren oinarritzako kopia barne.

Gainera, enpresak egiaztatu egin beharko du lantokian indarrean dauden prestakuntza kontratuen kopurua bat datorrela araudian ezarritako mugekin eta tutoretza egokia bermatzeko duen benetako gaitasunarekin. Araudian, muga hauek lotzen dira enpresak langileen prestakuntza eskubideak bermatzeko duen gaitasunarekin, bereziki tutoretzari dagokionez.

Oinarritzako lan baldintzak

Kontratuaren iraupena egokitu beharko da EAZ Ilbide Dualaren prestakuntza planera eta egutegira. Oro har, ikas-ekinezko prestakuntza kontratuak izango du gutxienez hiru hilabeteko eta gehienez bi urteko iraupena, eta modu ez-jarraituan bete ahal izango da, ikasketekin bat datozen urteko aldi desberdinetan, horrela aurreikusten bada prestakuntza planean edo programan.

Lanaldia antolatuko da jarduera akademikoarekin bateragarria den modu batean. Benetako lan denbora ez da izango lehenengo urteko gehieneko lanaldiaren % 65 baino handiagoa, ez eta bigarren urteko lanaldiaren % 85 baino handiagoa ere.

Modalitate honen bidez kontratatutako pertsonak ez dute aparteko ordurik edo ordu osagarriarik egingo, legez aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Ezingo dute ere gaueko edo txandakako lanik egin, prestakuntza planeko gaitasunak eskuratzeko beharrezkoa denean eta jardueraren ezaugarriak direla-eta beste aukerarik ez dagoenean izan ezik.

Eginiko lanaren ordainsaria izango da dagokion hitzarmen kolektiboan kontratu mota honetarako ezarritakoa. Lehenengo urtean, ez da izango hitzarmenean ezarritakoa (beteko diren eginkizunei dagozkien talde profesionala eta ordainsari maila) baino % 60 txikiagoa; bigarren urtean, ez da izango % 75 baino txikiagoa, betiere benetako lan denboraren proportzioan. Inola ere ez da izango lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa, benetako lan denboraren proportzioan. Gainera, ikas-ekinezko prestakuntza kontratuan ez dago probaldirik.

Pizgarriak eta hobariak

Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuak hobariak ekar ditzake kotizazioan, bai eta prestakuntzari eta tutoretzari lotutako hobariak ere, betiere aplikatu beharreko lege baldintzak betetzen badira.

1/2023 Errege Lege Dekretuak dio ikas-ekinezko prestakuntzako kontratuak eskubidea ematen duela, kontratuaren indarraldian eta haren luzapenetan, hobariak izateko langileak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotetan eta baterako diru bilketako kontzeptuetan. Prestakuntza kontratuak mugagabe bihurtzeagatik hobariak ere aurreikusten ditu.

Ikas-ekinezko prestakuntzari dagokionez, araudiak hobariak aurreikusten ditu, prestakuntza kostuak finantzatzeko, kontratuari lotutako prestakuntza jarduera enpresa batean egiten denean. Oro har, gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartzen da lehenengo urteko lanaldiaren % 35ari dagokion ordu kopurua, eta bigarren urteko lanaldiaren % 15ari dagokiona. Kontratua formalizatzen bada Gazte Bermekeko Sistema Nazionalaren onuradunekin, ehuneko horiek gora egiten dute, % 50era lehenengo urtean eta % 25era, bigarrean.

Gainera, ikas-ekinezko prestakuntza kontratuak egiten dituzten enpresek hobari bat aplikatu dezakete tutoretza kostuengatik. 1065/2025 Errege Dekretuak arlo hau indartzen du, espresuki arautzen baitu tutoretza betebeharren finantzaketa.

Edozein hobari aplikatuz gero, enpresak berrikusi behar du, kontuan izanik formalizatutako kontratua, kontratatutako pertsonaren profila, banakako prestakuntza plana, benetan eginiko prestakuntza, tutoretza jarduera erreala eta Gizarte Segurantzaren indarrean dauden baldintzak.

8. Prestakuntza proiektua, banakako prestakuntza plana eta enpresako tutorea

Prestakuntza proiektuak eta banakako prestakuntza planak ziurtatzen dute enpresan eginiko egonaldiak benetako prestakuntza helburu bat duela, EAZ graduari lotuta dagoela eta haren jarraipena eta ebaluazioa egin daitezkeela. Proiektuaren eta planaren eginkizuna da ziurtatzea ikasle langilearen egitekoa ez dela mugatuko unibertsitate prestakuntzarekin zerikusirik ez duten zereginetara.

Prestakuntza proiektuak ikuspegi akademikotik antolatzen du egonaldia: zer arlotan lan egingo den, zer zeregin beteko diren, garatu beharreko gaitasunak, egutegia, arduraldia, tutoretza, ebidentziak eta ebaluazio sistema. Banakako prestakuntza planak, bestetik, ikas-ekinezko prestakuntza kontratuarekin lotzen du jarduera hori, eta koherentea izan behar du hitzarmenarekin, kontratuarekin, benetako ordutegiarekin eta enpresan eginiko zereginekin.

Indarrean dagoen arau esparruak dio ikas-ekinezko prestakuntza kontratuak bateragarri egin behar dituela lan ordaindua eta unibertsitate ikasketak, era integratu eta koordinatu batean, eta lan jarduerak prestakuntza helburu bat bete behar duela. Halaber, kontratua formalizatu aurretik, enpresa behartzen du egiaztatzea dagokion unibertsitate prozesuari loturiko prestakuntza jarduera egoki bat dagoela.

Enpresaren ikuspuntutik, bi dokumentuek argi eta garbi erantzun behar diete galdera hauei: zer egingo duen ikasleak, zer ikasiko duen, nork lagunduko dion, noiz lagunduko dion, zer baliabiderek, zer ebidentzia sortuko dituen eta nola baloratuko diren haren urratsak.

Prestakuntza proiektuaren eta banakako prestakuntza planaren edukia definitzean, enpresa elkarlanean arituko da fakultatearekin, eta honako hauek zehaztu beharko ditu: zer arlotan edo sailetan lan egingo den, zer lan egingo diren, ikaskuntza helburuak, eskura egongo diren bitartekoak, egutegia, tutorea edo instruktorea, eta ikaslearen bilakaera baloratzen lagunduko duten ebidentziak.

Enpresan eginiko lanek zerikusia izango dute EAZ graduarekin eta graduaren gaitasunak eskuratzeko modua emango dute; hala nola enpresa informazioa aztertzea, txostenak egitea, kudeaketa prozesuetan laguntzea, datuak interpretatzea, komunikazio profesionala, prozesuak hobetzea, baliabideak antolatzea edo hainbat eratako proiektuetan parte hartzea (administrazioa, finantzak, kontabilitatea, marketina, pertsonak, operazioak, logistika, berrikuntza, jasagarritasuna, nazioartekotzea edo datuen analisia).

Ibilbidea mailaz maila antolatuko da. Lehenengo egonaldian, urrats nagusiak izango dira ikaslearen harrera, enpresa ezagutzen hastea, behatzea eta hasierako lanak lagunduta egitea. Bigarren egonaldian, garrantzi handiagoko zereginak hartuko ditu bere gain ikasleak, entregableak egin, eta autonomia handiagoz jokatu du. Hirugarrenean, are gehiago parte hartuko du enpresan, bere prestakuntza mailari dagozkion erantzukizunekin eta, ahal dela, aurrerago egingo duen Gradu Amaierako Lanarekin lotura duten zereginetan.

Enpresak tutore edo instruktore bat izendatuko du. Pertsona hau izango da ikaslearen erreferentzia nagusia enpresan, eta lotura lanak egingo ditu EHuko tutore akademikoarekin. EHuren prestakuntza dualaren araudiak dio erakunde laguntzaileak enpresako tutore bat izendatu behar duela, tutoretza lana modu egokian egiteko behar diren esperientzia profesionalarekin eta ezagutzeekin, eta pertsona hori ezin dela izan tutore akademikoa.

Enpresako tutorearen eginkizun nagusiak dira: ikasleari harrera egitea, haren lana antolatzea prestakuntza proiektuaren arabera, zereginak gainbegiratzea eta orientatzea, barne antolamenduari eta arau aplikagarriei buruzko informazioa ematea, tutore akademikoarekin koordinatzea, gorabeherak jakinaraztea, beharrezko baliabide materialak jartzea eta ebaluaziorako behar den txostena egitea. EHuren araudiak espresuki aipatzen

ditu eginkizun hauek, segurtasunari eta laneko arriskuei buruzko informazioa emateko, bitartekoak jartzeko eta konfidentziasuna gordetzeko betebeharrak barne.

Instruktoreak denbora eta bitarteko nahikoak izan behar ditu tutoretza lan egoki bat egiteko. Haren zeregina ez da soilik ikasleari zereginak agintzea, eta ziurtatu egin behar du enpresaren eguneroko jardura dela ikaskuntza esperientzia ordenatu, progresibo eta ebaluagarri bat. Beharrezkoa izanez gero, laguntza eskatu ahal izango die enpresako beste pertsona batzuei, nahiz eta solaskide nagusia izaten jarraituko duen, bai ikaslearen bai fakultatearen aurrean.

Aldaketa garrantzitsuren bat egiten bada prestakuntza proiektuan, banakako prestakuntza planean, arloan edo sailean, agindutako zereginetan, egutegian edo instruktorean, tutore akademikoari jakinarazi beharko zaio. Enpresak ezin izango du bere kabuz egonaldiaren prestakuntza edukia alda dezakeen aldaketarik egin, aurretik egiaztatzen ez bada bateragarria dela EAZ graduarekin, kontratuarekin eta banakako prestakuntza planarekin.

Laburbilduz, egonaldi bakoitza hasi aurretik, enpresak argi eta garbi zehaztu beharko ditu proiektua, zereginak, espero den mailaz mailako aurrerapena, instruktorea, eskura dauden bitartekoak, ikaskuntza ebidentziak eta jarraipen sistema. Elementu hauek oinarritzeko dira EAZ liblibide Duala benetan eraginkorra izan dadin, enpresaren, ikaslearen eta unibertsitatearen arteko benetako prestakuntza lankidetzak.

9. Harrera, jarraipena, ebaluazioa eta gorabeherak

Ikasle langilea era egoki eta ordenatuan hasiko da lanean enpresan, prestakuntza proiektuaren eta banakako prestakuntza planaren arabera. Hasierako harrera, egonaldian eginiko jarraipena eta amaierako ebaluazioa prestakuntza prozesu dualaren parte dira, eta koordinatu egin behar dira, enpresaren, fakultatearen eta ikaslearen artean.

Egonaldiaren lehen egunean, enpresak ikasleari aurkeztuko dizkio lan egingo duen arlo edo saila, tutorea edo instruktorea eta lantaldea, eta azalduko dizkio ere oinarritzeko barne arauak, komunikazio kanalak, aurreikusitako egutegia eta lehen zereginak. Gainera, behar den gainerako informazio guztia ere emango dio: laneko arriskuen prebentzioa, konfidentziasuna, datuen babesa eta barne dokumentazioaren edo tresnen erabilera.

Ikaslearen integrazioa pixkanakakoa eta mailaz mailakoa izango da. Lehen fase batean, zeregin nagusiak izango ditu enpresaren antolamendua ezagutzea, prozesuak behatzea, dokumentazioa berrikustea, bileretara joatea eta gidatutako lanak egitea. Egonaldiak aurrera egin ahala, garrantzi eta autonomia handiagoko lanak egiten hasiko da, betiere EAZ graduarekin loturikoak, bere prestakuntza mailarekin koherenteak eta prestakuntza proiektuan aurreikusitak.

Enpresako tutorea edo instruktorea arduratuko da ikaslearen lanaren ohiko jarraipena egiteaz. Jarraipen honen bidez, eginiko lanak berrikusiko dira, zalantzak argitu, zailtasunak detektatu, ikaslearen bilakaera baloratu eta, beharrezkoa izanez gero, jardura doitu. Gainera, enpresa harremanetan egongo da EHUKo tutore akademikoarekin, batez ere egonaldi bakoitzaren hasieran, garapenean eta itxieran.

Erreferentzia gisa, eskema honen arabera antolatu ahal izango da jarraipena:

8. taula: Parte-hartzaileak, helburua eta ebidentziak

Unea	Parte-hartzaileak	Helburua	Ebidentziak
Egonaldiaren hasiera	Enpresa, tutore akademikoa eta ikaslea	Helburuak, zereginak, egutegia, ordutegia eta espero diren ebidentziak berrikustea	Akta laburra edo posta bidezko berrespena
Ohiko jarraipena	Instruktorea eta ikaslea	Aurrerapenak berrikustea, zalantzak argitzea eta zereginak doitzea	Jarraipen erregistro laburra
Bitarteko jarraipena	Enpresa, tutore akademikoa eta ikaslea, hala badagokio	Prestakuntza proiektuaren egokitasuna egiaztatzea eta gorabeherak detektatzea	Jarraipen oharra edo hartutako erabakiak
Egonaldia ixtea	Enpresa, tutore akademikoa eta ikaslea	Emaitzak, garatutako gaitasunak eta hurrengo	Balorazio txostena

		faserako hobekuntzak baloratzea	
--	--	------------------------------------	--

Egonaldi bakoitzaren ebaluazioa ebidentzietan oinarrituko da. Ebidentzien artean daude txosten laburrak, lan dokumentuak, eginiko analisiak, aurkezpenak, aginte koadroak, jarduera erregistroak, proiektuari loturiko entregagarriak, egonaldiaren memoria, portfolioa edo ikasitakoa baloratzeko aukera ematen duten beste material batzuk. Ez da komeni enpresak dokumentu karga handiegia sortzea, baina nahikoa informazio gorde behar du ikaslearen jarraipena egin eta bilakaera aztertzeke.

Egonaldi bakoitza ixtean, enpresako tutoreak edo instruktoreak ikasleak eginiko lanaren balorazioa egingo du. Balorazioak barne hartuko ditu, gutxienez: aurreikusitako zereginen betetze maila, ikaslearen bilakaera, lorturiko autonomia maila, garatutako gaitasunak, izandako gorabeherak eta hurrengo faserako gomendioak. Ebaluazio akademikoa fakultateari badagokio ere, enpresaren balorazioa ibilbide dualaren funtsezko ebidentzia bat da.

Edozein gorabehera garrantzitsu lehenbailehen jakinarazi beharko zaio tutore akademikoari. Gorabehera garrantzitsutzat hartzen dira, besteak beste: ordutegi, egutegi, sail, instruktore edo zeregin aldaketak; egokitzeko zailtasunak; behin eta berriz lanera ez joatea; errendimendu arazoak; barne arauak ez betetzea; segurtasuneko edo arriskuen prebentzioko gorabeherak; eta kontratuan, prestakuntza proiektuan edo ebaluazioan eragina izan dezakeen beste edozein gorabehera.

Enpresak ez ditu bere kabuz aldatu behar egonaldiaren funtsezko baldintzak, aldaketak ibilbidearen prestakuntza edukiari eragiten badio. Zereginak, arduraldia, laneratze arloa edo jarraipen sistema egokitu behar direnean, tutore akademikoari jakinarazi beharko zaio, ikusteko ea aldaketa bateragarria den EAZ graduarekin, ikaslekin prestakuntza kontratuarekin eta banakako prestakuntza planarekin.

Laburbilduz, ondo kudeatutako egonaldi dual batek behar ditu harrera egokia, pixkanakako lanak, aldizkako jarraipena, fakultatearekiko etengabeko komunikazioa, ikaskuntza ebidentziak eta aldi bakoitzaren itxiera dokumentatua. Helburua ez da esperientzia burokratizatzea, ezpada ziurtatzea enpresan eginiko lanak benetako prestakuntza helburua duela eta ikasle langileak eginiko urratsak behar bezala baloratzeko aukera ematen duela.

10. GRALa enpresan eta zeharkako bermeak

Gratu Amaierako Lana (GRAL) EAZ Ibilbide Dualaren parte da, prestakuntza proiektuaren amaiera. Ahal dela, zerikusia izango du enpresan eginiko lanarekin eta enpresa kudeaketarekin loturiko gai erreal batekin, eta garrantzi akademiko nahikoa izan eta fakultateak onetsi beharko du.

EHUren prestakuntza dualeko programaren barruan egon behar da GRALa enpresa edo erakunde laguntzailean egitea, enpresako kideen zuzendaritzapean edo kozuzendaritzapean, unibertsitate araudi aplikagarriaren arabera. EAZ Ibilbide Dualaren kasuan, GRALa bideratu ahal izango da honako hauek egitera: analisiak, diagnostikoak, hobetzeko proposamenak, azterlan ekonomiko-finantzarioak, plan komertzialak, antolaketa analisiak, berrikuntza proiektuak, jasangarritasuna, nazioartekotzea, kudeaketa kontrola, datuen analisi edo graduaren gaitasunekin loturiko beste arlo batzuk.

Enpresak GRALerako gaiak proposatu ahal izango ditu, baina lana esleitzea eta haren balidazio akademikoa egitea fakultatearen ardura izango dira. Lana egiten hasi aurretik, zehaztu egin beharko dira gaia, helburuak, eskura dagoen informazioa, irismena, egutegia, erreferentziako pertsonak eta konfidentzialtasun muga posibleak. Araudiak eginkizunen plan bat aurreikusten du prestakuntza dualeko GRALa egin eta zuzentzeko, eta plan horretan zehaztu behar dira, besteak beste: erakunde laguntzailea, lanaren izena, erakundeko zuzendarikidea, EHUko zuzendarikidea, datak, ordutegia, zuzendarikidearen arduraldia eta hizkuntza.

Enpresak GRALaren jarraipenean parte hartu ahal izango du, zuzendarikidearen edo instruktorearen bidez, testuingurua, informazioa eta orientazio praktikoa emanez. Hala ere, GRALak jarraituko du izaten EAZ graduoko lan akademiko bat, eta unibertsitatea arduratuko da hura amaieran ebaluatzeaz, kontuan harturik aplikatzekoa den araudia eta fakultateak ezarritako irizpideak.

GRALak edo egonaldiek berekin dakartenean enpresaren barne informazioa eskuratzea, informazio hori erabiltzeko baldintzak zehaztuko dira aurretik. Enpresak zehaztu ahal izango du zer datu erabil daitezkeen, zer informazio anonimizatu behar den, zer dokumentu ezin diren sartu memoria, txosten edo aurkezpenetan, eta zer muga errespetatu behar diren defentsa akademikoan. EHUn prestakuntza dualaren araudiaren arabera, ikasleek isilpean gorde behar dute erakunde laguntzailearen barne informazioa eta beren lanen sekretu profesionala, egonaldian zehar eta baita hura amaitzean ere. Gainera, behar izanez gero, konfidentzialtasun dokumentu espezifikoak sinatzeko eskatu ahal izango du erakunde arduradunak.

Datuak babesteari dagokionez, enpresak ikasle langilearen datuak erabiliko ditu soil-soilik hitzarmenarekin, kontratuarekin, prestakuntza proiektuarekin, jarraipenarekin eta ibilbidearen ebaluazioarekin loturiko helburuetarako. Ikasleak hirugarrenen datu pertsonalak eskuratzeko baditu (adibidez, langileak, bezeroak, hornitzaileak edo erabiltzaileak), enpresak adieraziko dio zer barne arau eta neurri bete behar dituen datuak gaizki ez erabiltzeko.

Jabetza intelektualari eta industrialari dagokionez, GRALa da Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babesten duen lan bat, eta eskubideen titulartasuna lanaren egileari dagokio, salbu eta ikasleak espresuki adierazi badu eskubide horiek lagatzen dituela, legeak ezarritako baldintzetan eta unibertsitateak onetsitako dokumentuaren bidez. Horregatik, enpresak uste badu GRALak edo proiektuak sor ditzakeela bereziki zaindu beharreko emaitzak, informazio estrategikoa, barne garapenak, lehia balioa duten proposamenak edo jabetza industrialeko eskubideak, horren berri eman beharko du lana hasi aurretik, fakultateak dokumentu tratamendu egokia erabaki dezan.

Enpresak ziurtatu egin beharko du ere ikasle langileak lan egingo duela segurtasun, osasun eta barne antolamenduko baldintza egokietan. Egonaldia hasi aurretik, informazioa emango dio erakundearen funtzionamenduari, barne arauak, komunikazio kanalei, tresna korporatiboen erabilerari eta laneko arriskuen prebentziorako arauak buruz. Unibertsitatearen araudiak erakundeko tutorearen esku uzten du ikasleari erakundearen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko informazioa emateko betebeharra; bereziki, segurtasunari eta laneko arriskuei buruzko araudiari buruzkoa. Halaber, prestakuntza proiekturako ezinbestekoak diren baliabide materialak jartzeko betebeharra.

Ikasle langileak enpresaren barne arauak errespetatu behar ditu, adostutako ordutegia bete, bere esku utzitako bitartekoak ondo erabili, instruktorearen jarraibideak kontuan hartu eta segurtasun, konfidentzialtasun eta datuak babesteko arauak bete. Segurtasunarekin, informazioaren eta datuen erabilerarekin, konfidentzialtasunarekin, jabetza intelektualarekin, barne arauarekin edo GRALarekin lotutako edozein gorabehera garrantzitsu gertatzen bada, horren berri emango zaio tutore akademikoari eta, hala badagokio, ibilbidearen koordinatzaileari.

Laburbilduz, GRALa edo barne informazioa eskuratzea dakarren edozein jardura hasi aurretik, enpresak argi izan beharko ditu bost alderdi: zer informazio erabil dezakeen ikasleak, zein diren konfidentzialtasunaren mugak, erakundeko nor lagunduko dion ikasleari, datuak babesteko zer neurri aplikatuko diren eta jabetza intelektual edo industrialaren erregulazio espezifikoak behar duen emaitzarik espero den.

1. eranskina: EHuko prestakuntza DUALAREN araudia

Esteka:

<https://www.ehu.eus/documents/2415715/0/Normativa+formacion+dual+castellano.pdf/a94e1447-3179-c082-8d50-b6218f831dfb?t=1611049880701>

2. eranskina: Prestakuntza-proiektua eskatzeko fitxa

Esteka: <https://www.ehu.eus/es/web/ekonomia-enpresa-fakultatea/donostia-sansebastian-dual-enpresak>

3. eranskina: Lankidetzaren hitzarmena

Esteka: <https://www.ehu.eus/documents/2415715/0/20200316+Anexo+I+Convenio+Formaci%C3%B3n+Dual+-+Con+contrato+%281%29.doc/8f626074-e1de-1f46-3f33-08c79acd5236?t=1611050590586>

4. eranskina: Egonaldien araberako prestakuntza proiektua

Esteka:

<https://www.ehu.eus/documents/2415715/0/20200316+Anexo+II+Proyecto+Formativo+-+Con+contrato+%281%29.doc/aaf4932e-ab30-e5a0-52c2-475872850455?t=1611050674593>

5. eranskina: Eginkizunen Plana (GRAL)

Esteka:

<https://www.ehu.eus/documents/2415715/0/20200316+Anexo+III+Plan+Jarduerak+-+Con+contrato+%281%29.doc/42020236-c8f6-e0d2-fd0c-36f00dc3eb7e?t=1611050685406>

6. eranskina: Egonaldien araberako balorazio txostena

Esteka:

<https://www.ehu.eus/documents/34449119/0/Balorazio+txostena+I ES.docx/7c04ff1d-070c-1274-af0e-3840e0d88eff?t=1563540193000>

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Atala)

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Oñati plaza 1, 20018 Donostia (Gipuzkoa)

Informazio gehiago: bidelan@ehu.eus | 943 01 83 51